

Ebazpena: R041/2025

Espedientea: E084/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 27a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita PARQUE EOLICO SAN CRISTOBAL 29, SL (aurrerantzean, P.E. SAN CRISTOBAL; IFZ: XXXXXXXXXX1) zergapekoak egoitza fiskala non duen zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 84/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.– P.E. SAN CRISTOBAL sozietatea 2021eko ekainaren 11n eratu zen, egoitza soziala Getxon (Bizkaia) zuela. 2022ko maiatzaren 27ko eskritura publikoaren bidez, egoitza soziala Madrilera eraman zen, eta lekualdaketa hori 2022ko ekainaren 17an inskribatu zen Merkataritza Erregistroan.

2.– 2022ko ekainaren 6an, Ikuskaritzako Zuzendariordeak egindako txostenean oinarrituta, BFAk ZAEARI eskatu zion P.E. SAN CRISTOBALen egoitza fiskala Getxotik (Bizkaia) Madrilera lekualdatzeko, atzeraeraginezko

ondorioekin erakundea eratu zen datara arte, hau da, 2021eko ekainaren 11ra arte.

3.– ZAEAk ez zion egoitza aldatzeko proposamenari Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren apartatuan aurreikusitako lau hilabeteko epean erantzun; beraz, isilbidez ezetsi zela ulertu zen.

4.– 2022ko azaroaren 4an, BFAk gatazka sustatu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean, azken horrek P.E. SAN CRISTOBALen egoitza fiskala zuzendu zela adieraz zezan, zeren eta, BFAren iritziz, hura Madrilen baitago 2021eko ekainaren 11tik, bat etorriz maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean xedatutakoarekin.

5.– Arbitraje Batzordeak izapideak egiteko onartu zuen gatazka, 84/2022 espediente-zenbakia eman zion, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da ZAEAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

6.– Hasierako alegazioen epeari zegokion izapidean, ZAEAk amore eman zuen demandatzailearen uziaren aurrean, proposatutako egoitza-aldaketaren arabera Zergak Kudeatzeko Eskualdeko Bulegoak egindako txostenean oinarrituta.

7.– Azken alegazioen izapidean, P.E. SAN CRISTOBALek ez du datu faktikorik eman egoitza-aldaketaren atzeraeragina 2021eko ekainaren 11ra mugatzeko, eta, halaber, adierazi zuen ados zegoela egoitza fiskala Madrilera aldatzearekin, baina haren eragina 2022ko martxoaren 22ra atzeratu zuen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak baitio Arbitraje Batzordearen eginkizuna dela:

“c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.”

2.– Zergadunen egoitzari aplikatzekoa den araudia.

Ekonomia Itunaren 43. artikuluko laugarren apartatuak honakoa ezartzen du:

“Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da:

(...)

b) Sozietateen gaineko zergaren mendean dauden pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute egoitza soziala eta, betiere, egoitza sozial horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada.

Irizpide horiek erabilita egoitza non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan.”

Egoitza fiskala aldatzea Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren apartatuan arautzen da, non hau ezartzen baita:

“Bederatzi. Administrazio interesdunetatik edozeinek eragin ahal izango du zergadunaren egoitza-aldaketa. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta lau hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Beste administrazioak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako Sei apartatuan azaldutako eran.

Egoitza aldatzeko proposamena igorri aurretik, administrazio interesdunak, beste administrazioarekin elkarlanean, eroldaren bidez egiaztatu ahal izango du egoitza fiskala.

Bi administrazioek adostu ondoren edo Arbitraje Batzordearen ebazpenaren ondorioz egoitza ofizioz aldatuz gero, aurkako frogarik ezean, era horretan xedatutako egoitza fiskalari ebazpenaren ondorengo hiru urteetan eutsiko zaiola ulertuko da.”

Bestalde, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluan, zerga-administrazioen artean sortzen diren gatazken hasieretan jarraitu beharreko prozedura arautzen da, eta zera dio 2022ko maiatzaren 26tik:

“Zerga-administrazioen artean sortzen diren gatazketan –erregelamendu honen 14. artikuluan aurreikusitakoetan izan ezik–, honako prozedura honi jarraituko zaio hastapenean:

(...)

3. Zergadunen egoitzaren ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren apartatuan aipatzen den lau hilabeteko epea bi administrazioen adostasunik izan gabe igarota, ez da beharrezko izango artikuluko honetako 1. eta 2. apartatueta aipatzen den errekerimendua egitea edo eskumenik eza aitortzea gatazka planteatu ahal izateko.”

3.– Amore ematea eta Arbitraje Batzordearen jarrera.

P.E. SAN CRISTOBALen egoitza fiskala egiaztatzeko egindako jarduketan ostean, Zergak Kudeatzeko Eskualdeko Bulegoak txosten bat egin zuen, zeinetan ondorioztatu baitzuen entitatearentzat proposatutako egoitza fiskalaren aldaketa onartu behar zela, 2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginezko ondorioekin.

Beraz, BFAk proposatutako aldaketa onartu beharra zegoela ulertuta eta ZAEA ados egonik zerga-egoitzaren aldaketaren ondorioak 2021eko ekainaren 11ko datari zegozkionak zirela, administrazio-kudeaketa eta bere negozioen helbidea ez zenez behin ere Bizkaian zentralizatuta egon, ZAEAk 84/2022 gatazkan amore ematea onar ziezaion eskatu zuen 2025eko ekainaren 11n.

Amore ematearen figura ez dago aurreikusita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, APAPEL), zeina aplikagarria baita Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua hara bidaltzen duelako funtzionamendu-araubideari dagokion guztirako. Aitzitik, atzera egitea aurreikusita dago, prozedura amaitzeko modu gisa (APAPEL, 84. artikulua), eta Arbitraje Batzorde honek figura hori aplikatu izan du beste prozedura batzuetan, non gatazka planteatu zitzaion administrazioak espresuki amore eman baitzuen administrazio sustatzailearen uzian.

Planteatutako gatazkan, nahiz eta zergaduna prozeduran pertsonatu, finean ez dago desadostasunik administrazioen artean zergadunaren egoitza dela-eta; horrenbestez, Arbitraje Batzordeak uste du bi administrazioen adostasunak, baita ondorioen datan ere (2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginez), Arbitraje Batzorde honek ZAEAk eskatutako amore-ematea onartu beharra dakarrela berarekin, bat etorritz APAPEL-en 94. artikuluan xedatutakoarekin. Hori guztia, aintzat hartuta gatazkan sortu den arazoa ez dela interes orokorrekoa eta ez dela komeni hura zehaztu eta argitzeko bideratzea, behin egiaztatuta geratu baita bi administrazioen arteko adostasuna eta P.E. SAN CRISTOBAL-en adierazpena bera, onartuz bere negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza lurralde erkidean dagoela eratu zenetik.

Ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPEL-en 21.1 artikuluan aipatzen diren erabakiekin.

Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek ekarri du Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora desagertzea, eta, horrenbestez, artxibatzea.

Bere xedea desagertu delako prozedura artxibatzeak, 2021eko ekainaren 11ko atzeraeraginezko ondorioak dituen egoitza-aldaketa adosteko ebazpen posible bat ez bezala, ez du eragozten administrazio eskudunak egoitza-aldaketaren prozedura bat bideratu behar izatea, zeinean zergapekoak atzeraeragina mugatzea defendatu ahal izango baitu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.– Onartzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore ematea Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 84/2022 gatazkan.

2.– 84/2022 gatazka artxibatzea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore emateagatik prozeduraren xedea galdu egin delako; izan ere, ez dago desadostasunik Administrazioen artean egoitza fiskala lurralde erkidera aldatzeari dagokionez, 2021eko ekainaren 11ra arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

3.– Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta PARQUE EOLICO SAN CRISTOBAL 29, SLri jakinaraztea.

Izpta: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Francisco Javier Muguruza Arrese.